



BARREN

TOKIKOM

Duintasuna platerean

Leire Mendikute, boluntarioa Lesbosen





FAMILIENTZAKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK, HAUREK UDAKO AISIA ESKAINTZAN (LUDOTEKA ETA ATXUTXIAMAIAKAREN ESKAINTZA) PARTE HAR DEZATEN

NORENTZAT:

- * Familia ugariarentzat eta guraso bakarreko familientzat: kuota osoaren % 30.
- * Aurreko familia ereduak izan gabe, bigarren seme-alabaren izen-ematea egiten dutenentzat: kuotaren % 30 (bigarren izen-emate horretan).
- * Gizarte izaerako hauetako diru-laguntzaren bat (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntza) jasotzen duten familientzat: kuotaren % 70.

NON ESKATU:

- * HAZen (Herriarren Arreta Zerbitzua), Santa Ana kalea, 2.
- * Elgoibarko Udaleko erregistro elektronikoa (www.elgoibar.eus, egoitza elektronikoa).

NOIZ ESKATU:

- * Maiatzaren 8tik 18ra.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

BASIC EGUZKI KIT-A

2 Paneleko KIT-A
Kontsumoa: 1Kw
Erabilera: argiztapena,
mugikor karga eta telebista.

2 x 275W

905 €
895 €

TECASOL

Técnicas del Agua y del Sol, S.L.

ETOR ZAITEZ GURE EGUZKI KIT ESKAINTZA EZAGUTZERA!

Zerbitzuak

- Salmenta
- Instalakuntza
- Konponketa eta mantenua
- Aholkularitza eta dirulaguntzen kudeaketa

CARAVANING KIT-A

Panel Malgudun KIT-A
Potentzia: 100Kw
Erabilera: argiztapena,
mugikor karga eta telebista.

365 €
330 €

San Ignazio kalea 3 behea, 20870 ELGOIBAR - 610 389 558 - tecasol@tecasol.net

EUSKARA SUSTATZEKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Eskaerak aurkezteko **azken eguna urriaren 29a** izango da:

- UEUK antolaturiko ikastaroak egiteko, EHUK eta HIK HASIk euskaraz antolatzen dituzten uda ikastaroak egiteko eta Aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko **ikastaroak euskaraz** egiteko dirulaguntzak.
- Elgoibarko establezimenduetako **errotulu nagusia** euskara hutsean edota **irudi korporatiboa** euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak.
- Herriko **enpresetan euskararen erabilera** bultzatzeko dirulaguntzak.
- Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo **euskara ikasteko** dirulaguntzak, baita bernetegietarako ere (laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 24a izango da).

Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzakete interesdunek HAZen,
Herriarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behea), edota telematikoki Udalaren webguneko Herriarren Atarian.
Informazio osagarria lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (943 744 366, euskara@elgoibar.eus).



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



Langilea eta euskalduna izatea bateragarriak ez direnean

horiek (estatus sozialarekin bat eginez), hierarkia horiek hausteko aukerarik gabe geratzen dira migranteak.

Horrekin ez dut iradoki nahi euskaraz jakitea baldintza izan behar ez denik, ezta gaur egungo panoraman euskalgingutzak lortu duen guztiak zentzurik ez duenik ere; errealitatea halakoa bada, euskararen eta lan munduaren inguruan hausnarketa sakon bat beharrezkoa dela baizik. Gurpil zoro bat da: kanpotik datorrena lan bila badator, lan baldintzarik eskasak dituen lanpostua lortuko du, beraz, ordu asko sartu beharko ditu ganorazko soldata bat irabazteko, ondorioz, ez

“Agian espazio informalagoak behar ditugu etorri berriak euskararengana hurbiltzeko”

dauka denborarik euskara ikasteko. Egoerak horrela jarraitzen badu, euskarak elitizatorako bidea har dezake, eta ez dakit hori den norabiderik egokiena arazo honi erantzun bat emateko.

Euskara harrera hizkuntza izatea nahi badugu, transmisio hori bermatu behar dugu, eta agian orain arte sortu ditugun espazio akademikoak ez dira nahikoa errealitate horri aurre egiteko. Agian espazio informalagoak behar ditugu etorri berriak euskararengana hurbiltzeko, edo behintzat gerturatze hori errazteko. Badaude euskaltegietan ikasteko diru-laguntzak, baina klase gehienetara joatea eskatzen dute, edota titulazioa lortzea, eta bizi ahal izateko lanean ordu asko sartu behar dituenak ez du erraz izango. Buelta gurpil zorora. Ez dakit soluzioa zein den, baina gure hizkuntza eskubideak aitortzea nahi badugu, horren inguruko hausnarketa prozesu bat hastea abiapuntu bat izan daiteke, ezta?

Maiatzaren lehena pasa berri den honetan, badirudi gero eta gehiago direla langile borroka aintzat hartu beharreko alderdiak: zaintza lanen feminizazioa, pensio dui-nen auzia, migrazioa eta arrazakeria... Gauzak horrela, Euskal Herriko egoera konkretuan aurrerapausoak ematea ez da erraza.

Izan ere, euskara oztopo bat izan da teke kanpotik datozen langileentzat, ez dago dudarik. Euskal eskala sozialean posizio altuak dituzten lanpostu askotan nahitaezko eskakizuna da euskara (hau da, titulazioa). Kontuan hartuta lan baldintzarik “onenak” dituzten postuak izango direla



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Argitalpenaren Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztaz ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edune Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
URDIA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDIARRO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► EL PILARREKO ZAHARREN EGOITZARAKO PROIEKTURIK EZ DAGOELA SALATU DU GAURGEROA-DUINTASUNAK

Elgoibarko Gaurgeroa-Duintasunak uste du ulertezina dela gaur egun El Pilarren orubean zaharren egoitza eraikitzeke proiekturik ez egotea, nahiz eta Gipuzkoako eta Elgoibarko EAJko buruzagiek hauteskunde kanpaina agindu zuten legegintzaldi hau amaitu baino lehen amaituko zela, 2022an. 2021eko martxoan gaude jada, eta Aldundiak ez du proiekturik El Pilarren egoitza eraikitzeke, eta ez ditu obrak lizitatu. Beraz, 2019ko martxoaren 1ean bezala gaude, Elgoibarren beste egoitza bat izango gurela agindu zigutenean, hauteskunde-kanpaina baten ponpa osoarekin.

Ez dugu ahaztu behar Markel Olano ahaldun nagusia, Ane Beitia alkatea eta EAJko beste zinegotzi batzuk zeudela El Pilarren egoitza berria eraikitzeke iragarpenaren ekitaldian. Izenburu handiak, argazkiak eta gezurrak.

Gipuzkoako eta Elgoibarko EAJko buruek 100-130 plazako egoitza agindu ziguten, zehaztasun gehiago eman gabe. Oraindik ez da hasi proiektuaren lizitazioa, eta, beraz, ez dakigu hasierako aurrekontuaren zenbatekoa.

Gaurgeroa-Duintasunatik ezin dugu onartu gezurra esatea, gezurra hauteskunde kanpaina bada ere. Elgoibarko herritarrek ez dutela merezi pentsatzen dugu.

Pandemiak egoitzen kudeaketaren irudi beldurgarriak utzi dizkigu, egoitza batzuetako kudeaketak ikaragarriak izan dira. Agerian geratu da batzuk negozioa pertsonaren aurretik jartzen dutela.

Horregatik uste dugu beharrezkoa dela egoitzei eta egoitzen ezaugarriak buruzko eztabaida eta hausnarketa lasaia egitea. 130 egoiliar eta haien zaintzaileak dituen egoitza baten kasuan

jarriko gara; hilabeteetan handik atea ezinik. Egoitza-ereduari buruzko eztabaida egin gabe dago EAEn, eta uste dugu ezin direla gauzak egin egiteke, horrek ondorioak izango dituelako egoitzetako erabiltzaileen eta haien zaintzaileen bizikaltatean.

Gaurgeroa-Duintasunak uste du beharrezkoa dela inplikaturako alde guztien arteko elkarrizketa eta debatea izatea, pertsonak zaintzeko erabil daitezkeen espazioei irtenbidea bilatzeko. Zentzu horretan, Santa Klaran tamaina txikiko egoitza bat proposatu du, eta San Lazaron adinekoentzako babespeko etxebizitzak izatea. Era berean, Udalak eta Gautenak lortutako akordioari esker gaur egun Santa Klara erabiltzen duten pertsonentzat El Pilar espazioa egokia izango litzatekeela uste du. Gaurgeroa-Duintasuna taldeak uste du beharrezkoa dela hausnarketa bateratua egitea eta eztabaidarako prest agertu da.

Gaurgeroa Duintasuna

► EAJ-K GEHIENGOAREKIN AGINDUKO BALU BEZALA JOKATZEN DU MENDARON

Otsailaren amaieran 2020ko aurrekontuaren likidazioa egin ostean Mendaroko Udaleko gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 3.200.000 euro ingurukoa zen.

Gerakin hori baliatzeko hainbat proposamen egin genituen EH BILDUTik eta EAJk ere egin zituen bereak. Apirilaren 26an egin zen proposamen horiek eztabaidatzeko batzorde informatiboa. EH BILDUren proposamenak baino ez ziren eztabaidatu. EAJ proposamen guztien kontra azaldu bazen ere, PSEk bat egin zuen guk egindako hainbat proposamenekin eta bi taldeen artean gehiengoa izanik, osteguneko plenoan aurrera ateratzeko moduan ziren. EAJren proposamenen inguruan ez zen ezertxo ere aipatu.

Osteguneko plenorako gai-ordenarekin batera bidali zitzaigun asteleheneko batzordeko akta. Akta horrek, ordea, erabat desitxuratzen zuen batzordean gertatutakoa. PSEk babestutako EH BILDUren hainbat proposamen desageritzeaz gain, batzordean eztabaidatu ez ziren EAJren proposamenak bere osotasunean bozkatzeko diktaminatzen zen bertan. Pleno aurretik jakinarazi genion EAJri aktarekin ez geundela ados eta puntu hori gai ordenetik kentzeko eskatzen gurela. Argi esan zigun alkateak plenoan: bera ez dagoela oposizioaren emailak eta mezuak irakurtzeko!

Hau al da EAJren gobernantza etikoa? Minorian gobernatzen duenak gaitzetzeko taldeekin negoziatu behar ditu aurrera atera nahi dituen proposamenak. Bada egoeraz jabetu eta gauzak behar bezala egiten hasteko ordua!

Mendaroko EH Bildu

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datoren eskutitzik argitaratuko.

Atzo zabaldu zituzten Urazandiko igogailuak


A abuztuan hasi zituzten eskailera mekanikoak kendu eta bi igogailu jartzeko obrak, eta atzo bertan inauguratu zituzten. Lehen igogailuak 14 metro inguruko altuera du, eta 1.500 kg. eta 20 pertsonentzako lekua du. Bigarrenak 8,35 metroko altuera du, eta honek ere 1.500 kg eta 20 pertsonentzako edukiera dauka. Igogailuak 24 orduz egongo dira erabilgarri, urteko 365 egunetan. Irekiera ekitaldian Ane Beitia Elgoibarko alkateak, losu Arraiz Hirigintza zinegotziak eta auzoko bizilagunek hartu zuten parte. Proiektu hau "udalerriko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko eta herritarren ongizatea bermatzeko" estrategiaren barruan sartu dute, eta Udalak 423.066,05 euroko inbertsioa egin du. Bi igogailu hauen instalatzeaz gainera, ingurua berrurbanizatzeko zenbait lan ere egin dituzte: euri-uren saneamenduan eta argiteria sarean hobekuntzak egin dituzte, eta sare berriak Led teknologiako 7 argi puntu berri eta berriro jarri beharreko beste bat ditu, aurretik zegoen argiteriaren bikoitza. Elgoibar irisgarriagoa egiteko helburuaren barruan, Arreiturre-Erretsundi batuko dituen igogailua eraikitzeo lanak lizitazio fasean daudela gogorarazi dute agintariek eta lanak 2021eko bigarren sei hilekoan hastea aurreikusten dutela. Horrez gain, Errotaberrin ere eskailera mekanikoak ordezkatzeko igogailua jarriko dute. Era berean, jakinarazi dute King Kong-eko zubiaren eraberritzea abian jartzeko hartu-emanen dabiltzala URA ur agentziarekin: aurtengoa lizitatuko da exekuzio proiektua, proiektua idazten hasteko.



Badesarako langile baten bila ari da Mankomunitatea

Badesak gabez hiri-hondakinak biltzeko zerbitzurako arduradun bat hautatzeko prozesua izapidetu du. Maiatzaren 12ra arte aurkeztu daitezke instantziak. Deialdiaren oinarriak eta eskabide eredia www.badesa.eus webgunean daude argitaratuta.

San Pedro kaleko 5 eta 6 zenbakietako etxebizitzak besterentzeko lehiaketa zabaldu du Elgoibarko Udalak



San Pedro kaleko 5 eta 6 zenbakietan dauden etxebizitza zaharrak besterentzeko lehiaketa irekia jarri du martxan Elgoibarko Udalak. Bi finka horiek aurretik bi solairutako etxebizitzak izan ziren, elkarri lotutakoak, baina egoera txarrean zeuden, besteak beste teilatua jausita zutelako, eta horregatik, Udalak eraisketa partzial batzuk egin behar izan zituen, arriskuak saihesteko. Behin lan horiek egin zirenetik, etxebizitzak solairu bakarrekoak dira eta horiek esleitzeko prozesua hasi du Udalak, irizpide bakar bat jarrita: prezioarena. Erosleak, nolahi ere, finka horiek etxebizitza gisa berreraiki beharko dituzte derrigor eta bi etxebizitza eraikitzeo edo biek bat egiteko aukera izango du. Lan horiek egiteko epe jakin batzuk izango ditu. Interesdunek ekainaren 18ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko. Lizitazioaren gutxieneko prezioa 41,563,14 eurokoa izango da, eta parte hartzeko 831,27 euroko bermea jarri beharko du. Proposamenak arreta bulegoan aurkeztu behar dira 8:00etatik 14:00etara edo bestela modu elektronikoan, www.elgoibar.eus webgunean sartuta.

Deba ibaiko zentral elektrikoetako presetan pilatzen den zaborra kudeatzeko proposamena egin du Elkarrekin Podemosek

Deba ibaiko hiru zentral elektrikoetako presetan pilatzen den zaborra kudeatzeko moduz ez dago gustura Elkarrekin Podemos. Zabaldu dutenez, egungo orrazi sistemak hondakinak kentzen ditu, baina ur zurrusta batek ibaira itzultzen ditu gero berriz. Horregatik, sistema aldatu beharra ikusten dute. Zaborra atxikitzeko "beste leku askotan erabiltzen diren", sareak jartzea proposatu dute, era horretan sarean gelditzen den zabor guztia erretiratzeko aukera egongo litzatekeelako. Horren harira onartu dute ez dagoela %100eko atxikipena ahalbidetzen duen kalibreko sarerik, baina orraziaren kalibre berekoa erabiltzea nahikoa litzatekeela uste dute. Hori dena kontuan hartuta, honakoa eskatu diote Udalean ordezkariak duten gainerako taldeei: Elgoibarko Udalak URA agentziari eskatzea dauden ur jauzi hidraulikoen aprobetxamenduen baldintza gisa jaso dezala Elgoibarko zentral hidroelektrikoetan sortutako hondakinak biltzeko aukera emango duten sistema jartzeak, hartara, ibaitik igarotzen diren hondakinen parte bat kentzeko.



Gauzatuko diren bere proposamenen berri eman du Mendaroko EH Bilduk

Subirautza energetikorako bidean, Mendaroko baliabide energetiko berriztagarrien azterketa eta planifikazio bat egiteko eta bide horretan urratsak egiteko eskatu zuen EHBilduk 2020ko aurrekontuetan, eta 2021ekoetarako beste partida bat gordetzea ere eskatu zuen, hainbat proposamen eginda. Orain, zabaldu du EH Bilduk egindako proposamen batzuk aurrera egin dutela, esate baterako, ikastolako teilatuan plaka fotovoltaikoak jartzeak. Debegearen bidez, Ekidom enpresak ikastolak dauzkan instalazioak eta kontsumoa aztertu ditu eta udan hasiko dira plakak jartzen. Ondo bidean, udazkenerako amaituta izango dituzte lanak. EH Bildutik poza agertu dute, baina nabarmendu dute beste udal erai-kin batzuetan ere gauza bera egin beharko litzatekeela. Horretarako, beste diru partida bat gordetzea proposatu dute. Era berean, energia fotobolaiakoarena ez ezik beste energia berriztagarri batzuetan Mendarok duen potentziala aztertzeke eta ustiatzeko ere eskatu dute.

Wifi udaletxean, liburutegian barne

Aspaldiko eskaera du EH Bilduk udaletxean wifi sarea jartzea. 2021eko aurrekontuetan ere proposatu zuen, eta orain jakinarazi dute Mendaroko Udala hasia dela udal eraikinean wifi sarea instalatzeko pausoak ematen, EH Bilduren proposamena aintzat hartuta. Wifi sare horrek liburutegia ere hartuko du.



CO2 neurgailuak eta Hepa aire iragazgailuak

Zientzia komunitatearen artean, eta jendartearen orhar, gero eta argiago dagoen kontua da COVID-19 birusa nagusiki arnastutako airearen bidez zabaltzen dela. EH Bildutik ezagutza horri lotutako "neurri konkretuak" eskatu izan dituzte pandemia hasi zenetik. 2021eko aurrekontuetan ere eskatu zuen CO2 neurgailuak eta HEPA iragazgailuak jartzeko Mendaron jendea pila zitekeen lokal publiko itxi guztietan. Zentzu horretan, duela aste batzuk jakinarazi zuen Mendaroko Udalak ikastolako jangelan eta psikomotrizitate gelan HEPA iragazgailuak jarri zituztela, eta berriki jakinarazi du ikastolarako, udaletxerako eta Gaztelekurako CO2 neurgailuak eta eguneko zentrorako aire iragazgailua erosiak dituela Udalak.

Zapatuaz geroztik Eibarko Eibarbus enpresak kudeatzen du Elgoibarko herri barruko autobus zerbitzua

Eibarbus enpresak kudeatuko du herriko autobus zerbitzua. Aldalur Anaiak SL, Arteondo eta Guipuzcoana SL enpresak ere aurkeztu ziren lizitazioa, baina Eibarbusen lortu zuen puntuazio handiena. Eibarbusen eskaintza 55.000 eurokoa izan da (BEZ gabe). Zapatuan ekin zion zerbitzua emateari, 15 lagunentzako lekua duen autobusarekin. Zerbitzua doakoa izango da "ekaina edo uztaile arte", Udalbus zerbitzua arautzeko ordenantza behin betiko onartu arte.

Udalak zerbitzua arautzeko Ordenantza Fiskaletan aldaketa egiten duenean hasiko dira kobratzen. Bidaia bakoitzak euro bateko prezioa izango



du, eta adinekoei eta ezinduei %50eko deskontua egingo diete. EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zuten Udalbus zerbitzua arautzeko ordenan-

tza. EHBilduk eta Elkarrekin Podemosek kontra bozkatu zuten. Bi alderdion ustez, zerbitzua kobratzeak azterketa eta eztabaida sakonagoa behar du.

Zerbitzuaren ezaugarriak

- Urte osoan izango dugu Udalbus zerbitzua, astelehenetik zapatuta, honako ordutegietan: astelehenetik barikura: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00 eta zapatutan: 10:00-13:00.
- Oharra: Zapatu arratsaldeetan, domeketan eta jai-egunetan ez da zerbitzurik izango, eta abuztuan, goizez bakarrik egongo da autobusa. Gabonetan eta jai egun berezietan aldaketa batzuk izan daitezkeela ere aurreratu dute, baina jakinaraziko dute.
- Orduro, puntuan, irteten den autobusak honako ibilbidea egingo du: Aita Agirre-Maalako biribilgunea-Herri Eskola-PSEren egoitza-Urazandi gaina (Tontodromoa)-PSEren egoitza-Maalako biribilgunea-Aita Agirre.
- Eta hogueietan irteten denak ibilbide hau egingo du: Aita Agirre-Maalako biribilgunea-Basarte-Erretsundi-Maalako biribilgunea-Aita Agirre.
- Erdietan irteten denak: Aita Agirre-Maalako biribilgunea-PSEren egoitza-Urazandi gaina-PSEren egoitza-Maalako biribilgunea-Aita Agirre.
- Eta hamar gutxiagotan irteten denak: Aita Agirre-Maalako biribilgunea-Meliton-Maalako biribilgunea-Aita Agirre.

Udalbus zerbitzuari lotutako erabakietan atzera egiteko eskatu du EH Bilduk

Autobus zerbitzua Urazandira eta Erretsundira mugatzea ez du begi onez ikusten EHBilduk eta zerbitzuari lotutako erabakietan atzera egiteko eskatu dio EAJri eta PSE-EEri, "autobus zerbitzu egokia" adostea denei dagokiela nabarmenduta: "Udalbus zerbitzuaren nondik norakoak proposatzerakoan inor kontuan hartu gabe jardun dira eta alde bakarrez hartu dituzte erabakiak, eta hori oso larria da", zehaztu dute horren harira. Era berean, Errotaberriko igogailua eraiki arte udalbus zerbitzua debaldekoa izatea ere eskatu dute EH Bildutik.

Zerbitzuak bete beharko lituzkeen premisak deskribatu dituzte. Batetik, herri osoari zerbitzua emateko zerbitzua planteatu beharko litzatekeela uste dute. Bestetik, Errotaberriko igogailua eraiki artean zerbitzua doakoa izateko eskatu dute. "Bitartean, Udalak autobus zerbitzua hobetuko luke, herriko beste auzo batzuetara zabalduz, linea berriak martxan jarriz pausoz pauso". Proposatu dute zerbitzuaren balizko prezioa eztabaidatzeko eta adosteko erabili daitezkeela denbora tarte hori, eta zerbitzua kobratu behar dela erabakiz gero, zer hobari sistema finkatu eztabaidatzeko.



“Kartzela handi bat da Lesbosko errefuxiatuentzako kanpalekua”

► LEIRE MENDIKUTE ZAPOREAK-EKO BOLUNTARIOA

Lanbidez ingeniaria da Leire Mendikute (Mendaro, 1990), baina oso bestelako lanetan dihardu apirilaren 5az geroztik, Grezian, Lesbos uharterean. Lanean eszedentzia hartu eta bost asterako joana da hara Zaporeak Gobernuak Kanpoko Erakundearekin, Europara iristen diren errefuxiatuei jatordu beroak prestatzera. Laguntzera joan da, baina aitortu du eman baino gehiago, jaso egin duela egonaldi honetan.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Zerk bultzatu zintuen Zaporeak egitasmoarekin bat egitera?

Beti izan dut gizarte gaiekiko interesa eta beste errealitate batzuk ezagutzeko gogo. Zaporeak 2018an ezagutu nuen. Orduan, hilabete egin nuen Atenasen Zaporeak-ekin. Oporrak hartuta joan nintzen hara, Patras eta Atenas hirietan harrapatuta zeuden errefuxiatuentzat kozinatzen. Atenasen izan nintzenezan berretsi nuen serio lan egiten duen erakundea dela Zaporeak eta euskal herritarrok egindako ekarpenak iristen direla errefuxiatu kanpalekuetara.

◆ Zer da Zaporeak? Nola antolatzen zarete?

Europara iristen diren errefuxiatuei janari duin eta beroa eskaintzen dien irabazi asmorik gabeko elkarte da. Donostian sortu zuten elkarte gastronomiko bateko bost-sei bazkidek. Siriako gerrak sortu zuen krisi humanitarioaren ondorioz, lagun talde hark Greziara joatea erabaki zuen, Europara ihesi zetozen pertsoneri laguntzera. Zekitena egitera joan ziren: kozinatzen. Hura izan zen hasia, eta tokiko jendearekin, GKEekin eta euskal gizartearen elkartasunarekin sortu zuten Zaporeak. Gaur egun, Grezian, Lesbosko errefuxiatuen kanpalekuan dihardugu lanean, hemen harrapatuta daudenentzako otordu beroak

prestatzen. Hemengo talde egonkorra errefuxiatuek eurek osatzen dute, eta gero, Euskal Herriatik aldi baterako boluntario etorritakoak gaude. Ni neuz bost astez egongo naiz hemen, lanean eszedentzia hartuta, baina maiatzaren 8an gure taldekoak itzultzen garenean beste batzuk etorriko dira. Boluntariotza motzak egiten dira Zaporeak-en, modu horretan jende gehiagok izan dezan hona etortzeko aukera eta euskal herritar gehiago sentsibiliza daitezten.

◆ Atenasen egon zinen eta orain Lesbosen zaude. Zer topatu duzu Lesbosen? Zer alde igarri duzu batetik bestera?

Kartzela handi bat da hau. Errefuxiatuen kanpalekuko bizi-baldintzak ikaragarri gogorrak dira, eta ikusi egin behar da benetan nola bizi diren jakiteko. Ezberdintasunak badaude Atenastik Lesbosera. Atenasera iristen ziren errefuxiatu batzuek errefuxiatu txartela zuten, baina beste askok Atenasko squats batzuetan edo zuzenean kalean lo egiten zuten. Portuko fabrika abandonatuetako sabai eraitsien azpian kanpatzen zuten askok, baldintza osasungaitzetan. Gu, han ere, kozinatzen jardun ginen, baina errefuxiatuak sukaldera etortzen ziren jateko bila eta geuk banatzen genien. Lesbosen, aldiz, ez daukagu banaketa era horretan

egiteko baimenik. Guk kozinatzen duguna beste gobernuz kanpoko erakunde batzuen bitartez banatzen dugu gero errefuxiatuentzako gunean. Hemen, Atenasen ez bezala, migratzaileen kanpalekua dagoelako. Moria izeneko kanpaleku handia zegoen lehen, baina su hartu zuen, inguratzen zuen olibondo sailarekin batera, eta milaka desplazatu aterperik gabe gelditu ziren. Joan zen astean izan nintzen hura ikusten eta negargarria da. Dena kiskalita dago, baina antzeman daiteke zer izan zen, hango hondakinak ikusita. 20.000 migratzaile izatera iritsi ziren Morian. Aterperik gabe gelditu ziren haietako gehienak. Haren ostean, Lesbosko kanpaleku hau eraiki zuen Gobernuak, Moriatik gertu.

◆ Zein da orain horko egoera?

Zertxobait hobea da, baina txarra hala ere. Sei bat mila migratzaile daude hemen, baldintza kaskarretan. Ez dute ur berorik, jatekorik ere ez, eta emandakoari esker bizi dira. Greziako Gobernuak eta Europak oro har ez ikusiarena egiten dute eta Gobernuz Kanpoko Erakundeen laguntzari esker har dezakete hemengoek dutxa bero bat tarteka, ikasi dezakete hurrek ingelesa edota jan dezakete bero. Esan dezakegu bizitza duina ziurtatzeko azpiegiturak eta baliabideak ematera behartuta daudenek beste aldera begiratzen dutela, hemen ikusten dugun hau esistituko ez balitz bezala. GKE ugari ari gara hemen lanean, eta bakoitzak bere egitekoa du, baina elkar hartuta ari gara: badaude haurdun dauden emakumeei laguntzeko daudenak, badaude haurren ongizatea bermatzen ahalegintzen direnak, Europara bakarrik iristen direnei laguntzeko erakundeak ere badaude, edo saiatzeko direnak ume txikiak dituzten familiei alokairu bat ordaintzen kanpoan, kanpalekutik irten daitezene... Laguntza sare handia dago osatuta.

◆ Zerk eraman zintuen horra?

Iruditzen zait erosoegi bizi garela gu, bizitzea baino bizirautea beste aukerarik ez duten milaka lagun ditugunean inguruan. Horregatik gustatu izan zait beste errealitate batzuk ezagutzea.

◆ Nola zaudete antolatuta hor?

16 bat lagun ari gara hemen sukaldean. Koordinatzailea euskal herritarra da, eta hemendik joandako beste lau bat izango gara, baina gainerakoak errefuxiatuak dira. Egutero, 1.400 ratio prestatzen ditugu gutxi gorabehera eta jai egunik ez dago hemen. Kamioietan iristen den karga hustu, inbentarioa egin, barazkiak garbitu, txikitu eta platereratzeko jarduten naiz ni. Orain, Ramadanean daudenez, datilen eta fruitu lehorren poltsatxoak ere osatzen ditugu eta okindegian ere aritzen gara pita ogia egiten. Jatordu bakoitzean tupperra, pita ogia eta fruta ematen ditugu. Horrez gain, gidari lanak ere egiten ditugu hemendik joandako boluntariook. Errefuxiatuek ez dute gidabaimenik hemen, euren jatorrizko herrialdeetan izan zuten arren, eta geu ibiltzen gara haiek batu eta sukalderraino eramaten. Hori bera oso gogorra zaie, beste baten menpe egotea berez arazorik gabe egin ahalko luketena egiteko. Gurekin lanean ari diren boluntarioen %95 gizonetzakoak dira. Emakumeek ez dute aukerarik beste jende batekin harremantzeko, lan egiteko, egunerokotik aldi batez ihes egiteko... Emakumeen egoera are da gogorragoa hemen.

◆ Zer da errefuxiatuentzat sukaldera lanera joan ahal izatea?

Arnasa. Aldi batez euren arazoak ahazteko aukera eskaintzen die lanak. Errudun sentitzen dira asko euren seme-alabei bizimodu duinago bat eman ezinagatik. Gurekin sukaldean ari den batek esan zigun aurrekoan errudun sentitzen zela ezin ziolako 6 urteko umeari eskolarik eman. Irandik etorri zen bera Europara familia hartuta, gerratik ihesi, hemen bizimodu duin bat egin ahal izango zutelakoan, eta hemen daude, harrapatuta, besteek emandakoari esker bizitzen. Etorkizun beltza dute, asilo politikoa lortu ezean, deportatu egiten dituztelako. Kezka hori nabarmena da sukaldean gurekin ari direnengan. Asiloa eskatzeko, euren herrietan jazar-tuak izan direla eta bizitza bera arriskuan dutela frogatu behar dute, eta ez da batere erraza. Jaioterria bizitza duinago bat izateko ametsarekin utzi dutela esatea ez da aski arrazoi. Gurekin lanean dabiltzan gehienek bi ezezko jaso dituzte, eta beraz, kanporatuak izateko arriskuan daude. Ezetza jaso dutenei aurpegietan igartzen zaie. Sekulako odisea pasatu dute ho-

“Bizitza duina ziurtatzeko azpiegiturak eta baliabideak ematera behartuta daudenek ez ikusiarena egiten dute”



naino iristeko eta Europako atea ikusi dutenean, zer eta preso daude! Izugarria da.

◆ Zer berezitasun ditu Lesbosetik?

Lesbos Turkiatik oso gertu dago. Turkia 30 bat kilometrorara dago itsasoz, eta gertuen dagoen puntuan hamar bat kilometro izango dira gehienez. Horregatik Europako atea esaten diote honi. Mafiek sekulako pagotxa dute inguruotan. Gertatzen dena da Lesbos uharte bat dela eta hona iristen diren asko aurrera egin ezinda gelditzen direla hemen. Gu Mitilini gaude, hiriburuan. Euskal Herritik etorritako boluntariook Zaporeak-ek daukan etxe batean bizi gara hemen, eta sukaldaria hobe bat minutuko bidea daukagu autoz.

◆ Nondarrak dira horra iristen diren gehienak? Zer perfiletako jendea da?

Familia asko ikusten dira hemen, bai eta mutil gazte asko ere, bidea bakarka egin dutenak. Aldiz, oso emakume gutxi ausartzen dira pauso hori ematera. Gehienak Afghanistan, Siria eta Irangoak dira. Ez dago kalkulu handirik egin beharrik jakiteko zer lagata datozen eta zeren bila.

◆ Zer egiten zaizu deigarriena?

Ikustea irribarre egiteko gai direla. Sekulako motxila astunak dituzte denek, eta hala ere, lanean, beti daude irribarretsu. Gurekin ari diren batzuk kanpalekuan bizi dira eta beste batzuk etxebizitzetan, alokairuan. Hala ere, pisuetan bizi direnak ere ez pentsa horko baldintzetan bizi direnik. Etxe berean lau familiaraino ere bizi dira, familia bakoitza logela batean sartuta, eta gehienek alokairua GKE-ek finantzatzeko dute.

◆ Beharrak askotarikoak izango dira, baina bereziki zeintzuk aipatuko zenituzke?

Behar psikologikoak batez ere. Lur jota daude. Begirik bildu ezinda daude asko eta depresio eta antsietate kasu ugari daude. Ez dira asko hitz egitekoak gainera, ezta negar egitekoak ere. Dena barruan gordetzen dute. Hezkuntza beharrak ere handiak dira. Errefuxiatuen umeak ez daude eskolatuta. Pandemia aurretik GKE askok eskaintzen zituzten eskolak edo ludoteka antzeko zerbitzuak kanpalekuan, baina orain, lehen mailako premiei erantzuten dieten erakunde gutxi batzuk baino ezin dira sartu.

◆ Pandemiak zer eragin izan du hor?

Lehen hau kartzela bazen, orain, kartzela barruko kartzela bihurtu da. Bi hilabetez kanpalekutik irteten ere ez zieten utzi, ezta erosketa txikiak egitera ere. Orain hasi dira neurri batzuk arintzen, baina hala ere, preso egoten jarraitzen dute. Gaitzak berak ez du hala ere hain gogor jo kanpalekuan, eta eskerrak!

◆ Zer sentitzen duzu hor zaudela?

Frustrazioa sentitzen dut askotan. Euskal Herrian ere herritarren gehiengo handi batek uste du immigrazioa arazo-iturri dela eta migratzaileak dirulaguntza xahutzaileak direla. Baina ez gara ohartzen izaki migratzaileak garela. Betidanik mugitu garela etorkizun hobeari baten alde. Gure arabasok ere utzi zuten Euskal Herria, bizimodurik atera ezin zutelako eta eskuzabalik hartu zituzten kanpoko herrietan. Gu, berriz, begira zertan ari garen!. E-



roparen jarrerak lotsagorritu egiten nau. Migratzaileen artean ere denetarik egongo da, gure artean bezala, baina guk hemen ikusi duguna da jende apala dela, lan egin nahi duena, eta seme-alabei etorkizun hobea eman nahi dietenak. Gerratik ihesi datoz, duten guztia lagata. Ez genuke hori ahaztu behar: inork ez duela bere sorterrira lagatzen bizitzeko behar duen hori baldin badu.

◆ Zer mezu zabalduko zenuke?

Lehenengo munduko arazoekin itsutuegi gaudela sarri eta komeni dela begiak zabaldu eta beste errealitate batzuei erreparatzea, ikustea gu bizi garen moduan egoteko beste asko ez direla bizi, eta hona datozenak ez datozela kapritxoak. Elkartasun bideak zabaldu behar ditugula esango nuke eta empatia handiagoa izan, biharko egunean guri ere gerta dakigukelako beste batzuen laguntza behar izatea. Hor bertan ere gertatzen zaigu: askotan oso gure munduan bizi gara, gure kuadrillan itxita, ondoan bizi diren familiek izan ditzaketan arazoei erreparatu gabe.

◆ Zerbaite gehitu nahiko zenuke?

Laguntzera etorri naizela ni hona, baina uste dudala eman baino gehiago jaso dudala hemen. Klase sozial, kultura, herrialde, pentsaera... ezberdineko pertsonekin dut hemen harremana eta konturatu naiz ezberdintasun guztien gainetik badela gauza bat batzen gaituena: pertsona garela eta duintasunez bizitzea merezi dugula. Nik denek gomendatzen diet halako proiektuetan boluntario lana egitea, oso garrantzitsua zaigulako desikastea eta begiak zabaldu eta beste errealitate batzuekin empatizatzea.

◆ Horkoak ikusi eta hona buelta ere ez da ba erraza izango, ala?

Ez, ez da, baina segituan ohiitzen zara horkora. Konturatu orduko sartzen zara horko gorpuean. Hemen nagoela askotan galdetzen diot neure buruari zergatik behar duan horrenbeste arropa, zergatik garen horren materialista, baina horra iristean bat ahazten dira kontu horiek. Triste da, baina hala da. Egia da, beti gelditzen dela zerbaite eta ikusi duenak beti izango duela buruan kezka hori, baina...



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Herriko bi jolasgune nagusietan itxita daude jolasteko hainbat elementu: “Maalako parkean ziburuak itxita daude, eta Lekuederreko parkean, berriz, sokak ezin dira erabili. Egun gutxi batzuetako kontua izango zela uste genuen, baina egunak aurrera doaz eta erabili ezinda jarraitzen dugu”. Hirigintza Sailetik jakinarazi dutenez Maalako ziburuak aste honetan konponduko dituzte. Lekuederreko sokei buruz esan dute sarea berriz ez apurtzeko moduren baten bila ari dela jokoan enpresa arduraduna, eta ahal bezain laster irekiko dutela.



Zubi Ondo elkartearen alboko bidezidorra oso zikina egoten da: “Zubi Ondo elkartetik Jausoro aldera doan bidea oso zikina egoten da. Bide horretatik jende asko ibiltzen da: Aizkorri kalerako igogailua hartzen dutenak, Jausorora doazenak... Herrigunea garbi mantetzen duten bezala, auzoak ere zaindu egin behar dira”. Hirigintza Saileko arduradunak erantzun du kale hori astero garbitzen dutela.



Basarte auzoa zikin-zikin egoten da: “Basarte auzoan *vending* makinak jarri dituztenetik dena zikinkeriaz beteta egoten da. Egunak eta egunak egoten da horrela kalea zikin-zikin eta paperontziak beteta”. Hirigintza Saileko arduradunak argitu du zakarrontziak egunero husten dituztela.



Bidegorriko komunak noiz jarriko dituzte?: “Elgoibartik Eibarrerako bidegorrian komunak jarriko zituztela esan zuten, baina denbora aurrera doa eta oraindik ez dituzte jarri”. Hirigintza Sailetik esan dutenez hilabete honetan aterako dute proiektua lizitaziora, eta ahal duten azkarren burutuko dute obra.

“Nahi nuke Mendarok jarrai dezan hazten eta jarrai dezan herri izaten”



Lourdes Etxeberria MENDAROKO IDAZKARIA

26 urte zituela hasi zen Mendaroko udaletxean lanean eta 63 urterekin hartu du erretiroa Lourdes Etxeberria Altzibarrek. Joan zen eguenean, udalbatzaren osoko bilkuran, urte hauetan guztietan egindako lana eskertu zioten egungo udal ordezkariak, lankideak eta Mendaroko alkate izandakoak. Ekitaldian izan zen bere ordezkoa izango dena ere: Irati Labaka Garmendia, 26 urteko beizamarra. Ordukoa da argazkia. Gaur, esker on hitzak izan ditu Etxeberriak guztientzat, eta bereziki lankideentzat.

- AINARA ARGOTIA -

◆ 37 urte badira urteak. Nola oroitzen duzu hasiera hura?

Joseba Etxeberria eta biok hasi ginen lanean Mendarozabal 5eko lokal hartan, eta ibilbide guztian ondoan izan dut, lankide eta lagun. Huts-hutsetik hasi ginen. Dokumentaziorako erabiltzen diren Atik Zrako karpetarik ere ez geneukan eta idazmakinekin egiten genuen lan. Gure lanbidea egia esan guztiz aldatu da ordutik eta exijentzia maila ere bai. Orduan ez zegoen gaurko konturik. 26 urterekin hasi nintzen, dena egiteko zegoela, eta orain konturatzen naiz zein

ausartak izan ginen Joseba eta biok erronka honi heltzeko, baina abiatu ginen, gaztetasunak ematen duen indar horrekin. Egia da laguntza handia jaso genuela bai Udaletik eta baita Foru Aldunditik ere, baina dena behar genuen. Ezerezetik hasi ginen ordenantzak idazten, aurrekontuak lotzen... Hirigintzako Plangintza lehenbailehen gauzatu behar zen, ondoren eraikinak egiteko baimenak emateko, eta egia da orain ikusten ditudala orduko dokumentuak eta konturatzen naizela ez daudela horren gaizki ere.

◆ Sortu berri zen herria. Ez zuen hasierak erraza izan behar.

Ordura arte Mendaroko zati bat Murtriku izan zen eta bestea Elgoibar, eta Mendarori buruzko dokumentazio guztia bi Udal horietatik jaso behar izan genuen. Bateratzeko lehenengo lana zaborren eta ur horniduraren gaia kudeatzea izan zen. Elgoibar Debabarreneneko Mankomunitatean sartuta zegoen ordurako, baina Murtriku sartu gabe zegoen oraindik. Azpilgoetan ur zerbitzu onik ere ez zegoen eta askotan moztzen zitzairen ura. Hor ikaragarizko obrak egin behar izan

“Proiektuak gauzatu direnetan poztu naiz ni beti, baina egunik ederrena edo gozoena agurrekoa izan da”

ziren, eta gaur egun, Kilimoiko urarekin hornitzen dira eskualdeko lau herri: Deba, Mutriku, Elgoibar eta Mendaro. Uholdeak ere izan genituen. 1983an urak hartu zuen Mendaro, eta hondamendi hartatik burua altxatzen hasiak ginenean, 88an berriz izan genituen uholdeak. Garagarzako obra handiak hasteko bultzada izan zen hura. Lan handiko urteak izan ziren. Eskola ere hiru eraikinetan zaituta geneukan herrian eta haiek denak batu eta gaurko eraikina sortzeko, sekulako lana egin behar izan zen. Ordurako jakina zen ospitalea Mendaron eraikiko zutela, baina plangintzak esaten zuen ospitalerako bidea herri barrutik pasatu behar zela. Azkenean, eztabaidatu ondoren, lortu zen bidea kanpoaldetik eraikitzea. Gero etorri zen Erramone industrialdea sortzea. Horiek denak lotu ziren lehenengo etapa hartan, baina jakina, frontoia eta udaletxea bera ere behar zituen herriak, eta etxebizitza berriak ere bai. Herria eraiki behar zen, eta herriak zerbitzuak behar zituen: jubilatuen egoitza, eguneko zentroa, Mendaroko bizkotxogintza sustatzeko ere inbertsio handiak egin ziren nahiz ez zuen funtzionatu, haurreskola, San Agustin kulturgunea... Urte guzti hauetan esango nuke gutxieneko zerbitzu gehienak eman zaizkiola herri honi.

♦ **Zer izan da udaletxe hau zure bizi-tzan?**

Dena. Ni udaletxeko lanari emanda bizi izan naiz, eta esan dezaket gustura jardun naizela. Merkataritza-perito izateko ikasketak egin nituen nik, enpresa munduari lotutako ikasketak, eta udaletxean hasi aurretik bi enpresatan jardun nintzen lanean. Bost urteko esperientzia banuen izatez, baina oso bestelako lanetan. Udaletxean hasi nintzenean konturatu nintzen beste prestakuntza bat behar nuela. Izatez, Estaturako Gaiak duen Eskalako lanbideetarako soziologoa, ekonomista edota Zuzenbide ikasketaduna izan behar da derrigor, eta ekonomia gaietan ezagutza bat banuenez, erabaki nuen Zuzenbidea ikastea. UNED Urrutiko Unibertsitatean hasi nintzen Zuzenbidea ikasten, eta EHUan amaitu nituen ikasketak.

Lana eta ikasketak uztartu nituen aldi batez eta ez zen samurra izan, baina bai egin beharrekoa.

♦ **Udalbatzaren azkeneko osoko bilkura zuri eskerrak emateko baliatu zuten udal ordezkariak eta langileak. Nola bizi izan zenuen?**

Izugarria izan zen, hunkigarria. Egundoko poza hartu nuen. Ez nuen espero eta aretora sartu eta haiek guztiak ikusi nituenean, nik maite ditudan guztiak han ikustean, dardarka jarri zitzaizkidan gorputz osoa. Juanito Loiola [Mendaroko lehenengo alkate izandakoa. 2014an zendu zen] falta zen, baina han zeuden Ana Mari [Mallabiabarrena] alarguna eta semea, Xeber. Eta han zeuden gainerako alkate izandako guztiak ere. Ezberdinak izan dira denak, baina alkate guztiak izan dira garrantzitsuak niretzat. Urteetan sentitu dut neu izan naizela udaletxean txar papera bete behar izan dudana eta barneratuta neukan jende askok, edo gehienek, ez nindutela laguntzat, eta ostegunearan jende guzti hura aretoan ikustek eta ondorengo egunetan jasotako mezu guztiak irakurtzeko sekulako poza eman didate. Orain esaten diet lankide izandakoei: ‘Sikiera esan izan bazenidate zerbaitek agur hitz batzuk prestatzeko...’. Bideoan hunkituta ageri naiz, eskuak bihotzera eramanda, ‘maite zaituzte!’ hitzez adierazi ezinda. Nire lan ibilbidean sekula ez dut izan ostegunekoa bezain egun politik. Aho-zapore ezin gozagoarekin noa, baina, polita izango zen ibilbide hau nirekin batera hasi zuenak, Joseba Etxeberriak, nirekin batera hartu balu erretiroa.

♦ **Gauza bat, hala ere: bizi osoan epeei lotuta bizi izan denari erretiroa hartzea doanean erlojua oparitzea ere...**

Kar-kar-kar. Udaletxean lanean hasi nintzen urtea eta aurtengoa grabatuko dizkidate erlojuan eta detaile polita izango da niretzat.

♦ **Agurrean bi gauza nabarmendu zenituen. Batetik eskerrak eman zenizkion “taldeari”, eta bestetik aitortu zenuen batzuetan gogorra izan zarela, “zorrotzegia”.**

Nik beti izan dut garbi nire lana ez dela ezer inguruan talde bat izan ezean. Ni izan naiz askotan gurdinari tiraka jardun dena, baina bakarrik ez nintzen ezertarako gai izango. Oso zorrotza izan naiz nire lanean, zorrotzegia askotan, baina lanak atera egin behar ziren prozedurak eskatzen duen bezala. Horregatik tokatu zait askotan arauak gogoraraztea eta gauzak legez nola egin behar diren ohar-taraztea, epeak zaindu behar direlako edozertarako, dirulaguntzak epe jakin batzuen barruan justifikatu behar direlako eta egiten denak ondorioak dauzkalako.

♦ **Zer gauza on eta zer ez hain on dauka herri txiki batean udaletxeko idazkari izateak?**

Gauza ona da herritar guztiak ezagutzen dituzula eta gutxi bezain ondo ezagutzen duzula herria bera ere. Baina txarrena ere hori bera da askotan: gertukotasun hori. Askotan ikusi dut neure burua lagunartean kontra egiten edo eskatzen dena ukatzen arauak betearazteko eta hori oso gogorra da. Mendaro herri txikia da, denok ezagutzen dugu elkar, eta baimen batzuk ukatu behar izatea edo zerbaitek exijitu beharra izatea ez da gozoa. Hitz gogorak eta zatarrak ere entzun behar izan ditut, eta horrek min ematen du, bai.

♦ **Nola uzten duzu Udala hau? Dirukontuak osasuntsu daude?**

Batzuek esaten dute diru-poltsa handia egotea ez dela kudeaketa onaren erakusle, dirua mugitu egin behar delako. Egia da altxortegi handia daukagula, baina diru hori gastatzeko moduko planak aurreikusten dira. Egon dira Mendaron garai zailagoak ere, mailegu handiak eskatu behar izan diren urteak, udaletxe hau eraiki ze-



Lourdes Etxeberria lankideekin.

nean edota San Agustin kulturgunea sortu zenean esaterako. Horiek izan dira eskatu ditugun mailegu handienak, baina eskatu beharra zegoen, herriak behar zituen gauzak zirelako biak ala biak. Ez da kontua dirua egitea; dirua behar den gauzetan gastatu behar da, eta behar denean, eskatu ere egin behar da.

◆ **Sei alkate ezagutu dituzu. Hitz gutxitan definituko zenuke bakoitza?**

Esango dizut bakoitzak bere ezaugarriak izan dituela eta batzuekin hobeto moldatu naizela beste batzuekin baino, baina denekin saiatu naiz ondo konpontzen eta oroitzapen onekin noa.

◆ **Alkateek eurek baino hobeto eza-gutzen duzu etxe hau. Zer ikusi gabe utzi duzu udaletxea? Zer egin gabe?**

Uholdeak izateko arrisku potentzialeko eremua da Garagartza eta iruditzen zait hiria berronertzeko plan bat egin beharko litzatekeela han. Momentuan ez zaio horri heldu, baina nire ustez lehentasuneko da horri heltzea, uholdeak izaten diren gunehorretan ezin daitekeelako eraiki eta horrek kalte egiten diolako auzoari, bai eta hango bizilagunei ere. Beste kontu bat da Mendaron dendak ixten ari direla, batez ere auzoetan. Ez da Mendaroko kontua bakarrik, herri guztietan ari delako gertatzen hori, baina jarri beharko ginateteke aztertzen zer egin hori saihesteko. Gainerakoan, herri txikia izanda,

iruditzen zait oinarritzko zerbitzuak badauzkagula eta udal eraikinak ere badaudela, herritarrentzako erabilgarri.

◆ **Momentu gogoangarririk ere izango ziren horrenbeste urtean. Esaterako?**

Proiektuak gauzatu direnetan poztu naiz ni beti. Hori bai, pertsonalki, egun ederrena edo gozoena agurrekoa izan da zalantzarik gabe.

◆ **Eta une gazirik ere izango zen, nekez ahazten diren horietakoak**

Mendaro eta inguru guztiak suak hartu zituenekoa. 1989ko abenduan izan zen. Infernua ematen zuen honek. Negargarria izan zen, beldurgarria oso. Gogoratzen dut baserrietatik jendea deika izan genuela gau eta egun.

◆ **Zer du Mendarok beste herriek ez dutenik?**

Ura. *Kar-kar*. Udalaren eta herritarren arteko gertutasuna aipatuko nuke. Egutero jasotzen ditugu herritarren kexa, iradokizun eta ekarpenak, eta hori aberasgarria da.

◆ **Eta 37 urtean agiri eta zenbaki artean bizi izan denak, zer asmo dituzte erretiroerako?**

Momentuan, atsedean hartzea. Azkeneko hilabete hauek oso gogorrak izan dira, eta atsedena hartu eta kirol pixkat egitea dira nire asmoak.

◆ **Odol Emaileen Elkartearen bueltan ere ikusi zaitugu. Hortik ere erretiroa hartu al duzu?**

Ez, hor jarraituko dut, baina egia da



IRATI LABAKA GARMENDIA

Beizamarra da sortzez, 26 urte ditu, eta Azpeitian bizi da. Zuzenbidea ikasi zuen EHUn, eta abokatutzarako masterra egin zuen ondoren praktikan ari zen bitartean. Oposizioak prestatzeari ekin zion gero, eta hautaketa prozesu ezberdinetara aurkeztu zen. Gipuzkoako Foru Aldundian hartu zuten lanerako, eta urtebete eta hiru hilabetez jardun da han, Lurralde Antolamendu eta Mugikortasun Sailean, harik eta Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionario izateko lan-poltsa zabaldu zuten arte. IVAPetik [Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea] jaso du Mendaroko udaletxean lanean hasteko deia. Behin-behineko funtzionarioa da. "Gogo handiz hartu dut lanpostua. Badakit Lourdesek ordu asko dedi-katu dizkiola udaletxe honi eta nik ere halaxe egin beharko dudala, eta badakit Lourdes oso maitatua izan dutela askok eta haren lekura natorrela ni. Iruditzen zait Mendaroko udaletxeak oso teknikari onak dauzkala eta ikusi dudanean apurrean gustatu zait. Uste dut ondo konponduko garela", dio.

Dorleta [Lazarobaster] eta Arantza [Egaña] oso-oso ondo moldatzen direla ni gabe ere. Hala ere, diru kontuetarako edo kudeaketa lanetarako hemen izango naute beti, behar nautenerako.

◆ **Zer opa diozu herri honi?**

Onena. Nahi nuke jarrai dezan hazten eta jarrai dezan herri izaten. Elkar hartuta gauza asko egin ditzakegu eta horixe eskatuko nieke guztiei: bila ditzatela elkarguneak, jardun dezatela herriaren alde elkarrekin, eta ez zatituta.



Iñigo Lamelas

Irati Agirrezaldegi



Zaldia gida dezake zalduna, autokak ez du gidatzen autozaina. Argazkian falta dira autoa eta zalduna, irudiari norabidea hartzeko gai gara baina.

Bi zaldi guganantza, behelainoa atzean utzi eta argitasunera bidean pausatua da urratsa. Hala ere, beren nahiak lainoen itxitik mendiko askatasunera daramatza.

Bi zaldi gurera eta kontrara bi errubera. Mendian behera, laino artera. Hodei artean ezkutatzeko arrazoia zein ote da? Txirrindularia behelainoan aske sentituko ote da?

Zaldia aurrerantz eta auskalo nora beraien buruen baitako pentsamendu isilak. Borobilean bueltaka gupila eta gainean doana buruari birak ematen abila. Burura etorri ohi diren ideiak eramateko gai gutxitan da abaila eta buruhauste gehien sortzen diguna da ahazten zaila.

Bizikleta eta zaldia ez da bat bestea baino hobea, esaeraren

arabera zaldirik seguruenak, nork bere zangoak dira, ordea. Beraz, gupilen gainean bezala, oinen gainean mendi ibilerak gozatzeko ohorea. Oinak lurtean eta burua askatasunean hegan jartzeko har dezagun tenorea.

Askatasun bila joaten da jende asko mendira. Mugak nagusitu diren sasoi honetan mendiak betetzen ari dira, baina nor joango da ibilian-ibilian dabilen bidera zapatuan Sareren deialdira?

Elgoibartarrok, Morkaikora, eta Morkaikotik egingo dugu etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidea eta ahalik eta jende gehien elkartzeko bide horretan ahalik eta pauso gehien eman eta helmugara iristea da idea.

Mendian txirrindularien eta zaldien laino arteko irudia da protagonismoa daukana. "Bihozkada arrotz batek haiengana nararama", hori da Eñaut Elorrietak *Zaldia eta behelainoa* kantuan esana. Haiengana? Norengana? Dispersioari aurre egin eta denak bizikide, herrikide, libre izan gaitzekela uste dugunongana. Zaldiz, bizikletaz zein oinez, lainoen gainetik zein azpitik, aske bizi nahi dugun guztiongana.

"Elgoibartarrok, Morkaikora, eta Morkaikotik egingo dugu etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidea"

Beltzak ikusi: Pasarlak moradas, pasar apuros.
Kintzena horrekin, beltzak ikusiko dituk hill osua pasatzeko.

Elgoibarko XX. auresku txapelketa jokatuko dute asteburuan



Elgoibarko Auresku Txapelketa 20. ediziora iritsi da, eta asteburuan jokatuko dute Elgoibarko kanporaketa, Herriko Antzokian. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleak ere, bertan izango dira. Zapatuan A sailekoek (2011-2012-2013 urtetan jaiotakoak) eta B sailekoek (2008-2009-2010) hartuko dute parte. A sailean, estreinakoz arituko da txapelketa batean Unax Ansola, eta B sailean Elaia Etxaniz, Amaia Mendia, Uxue Cabrera, Maialen Pizarro eta Duna Santos arituko dira. Zapatuko saioa 16:30ean hasiko da. Domekan, berriz, D sailekoen (2006-2007 urtetan jaiotakoak) txanda izango da, eta ondorengoek hartuko dute parte: Jon Etxeberriak, Nerea Galindok, Malen Galarragak eta Eneko Etxanizek. 11:00etan hasiko da domekako kanporaketa.

'Elgoibar' Udal aldizkaria berriro kalean

2014an kaleratzeari laga zion *Elgoibar* udal aldizkaria kaleratzeari berrekin dio Udalak. Joan zen barikuan banatu zuten 25. zenbakia, eta bi hilabetetik behin etxe guztietara banatuko dutela jakinarazi dute Udaletik. Formatu digitaletan ere egongo da irakurtzeko modua, www.elgoibar.eus atarian.

Eta berri honetako lehen alean 2021eko aurrekontua eta Ordenantza Fisikalen eta hobarien inguruko informazioa argitaratu dute. Hurrengo alea ekainean iritsiko da.



Eduardo Arrillagaren argazki bat saritu dute 'Mundu Arteko Begiradak' argazki lehiaketan

Mundu osoko 261 argazkilarik 1.241 lan aurkeztu dituzte Donostiako Udalak antolatzen duen *Mundu Arteko Begiradak* nazioarteko argazki lehiaketara, eta Eduardo Arrillaga elgoibartarraren argazki bat ere saritu dute. Lehen hiru sari nagusiez gain, antolatzaileek 25 *accesit* banatu dituzte, eta horietako bat jaso du Arrillagak, *La niñera* izeneko argazkiari esker. Kalean bizi diren Boliviako umeen errealitatea ikusarazteko egin zuen lan bateko parte da Arrillagak lehiaketara aurkeztu zuen irudia.



Errenta aitortpena euskaraz egitera animatu nahi dituzte herritarrak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2023rako 100.000 herritarrek errenta aitortpena euskaraz egiteko erronka jarri du, eta ekimenarekin bat eginez, Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topaguneak 2020ko Errenta kanpainan aitortpenak euskaraz egitera animatu dituzte elgoibartarrak. Euskararen normalizaziorako bidean beste urrats bat da errenta aitortpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea, eta garrantzitsua da euskaraz dagokion lekua izan dezan administrazio publikoan ere. 2019. urtean Gipuzkoan 78.217 herritarrek euskarazko hizkuntza hautua eginda zeukatzen Ogasunarekin harremana izateko. Gaur egun errenta aitortpena aurkezteko lau bide daude, eta guztietan erabili daitezke euskara: Autolikidazio proposamena, mekanizatua, telematikoa eta nork bere bidetik. Informazio zehatzagoa www.gipuzkoa.net gunean.

Bihartik aurrera eskatu ahal izango dira udaldirako dirulaguntzak

Elgoibarko Udalak 4.000 euroko dirulaguntzak emango ditu haurren aisialdirako, eta udaldirako laguntzak bihartik aurrera eskatu ahal izango dira. 2 eta 12 urte bitarteko adingabeak dituzten familia ugari, guraso bakarreko familiei, familia ugaria edo guraso bakarrekoa izan gabe bigarren seme-alaba inskribatzen duten familiei eta DBE edo GLL jasotzen duten familiei zuzenduta dago dirulaguntza lerro hau. Laguntza jasotzeko ezinbestekoa da gutxienez azken 6 hilabeteetan Elgoibarren erroldatuta egotea eta udal-aisialdiko eskaintzaren batean izena ematea. Familia ugarietako eta guraso bakarreko familiek kuota osoaren % 30 jasoko dute dirulaguntzatan. Familia ugaria izan gabe, bigarren seme-alabaren izen-ematea egiten dutenek, kuotaren % 30 jasoko dute dirulaguntza gisa, bigarren izen-emate honetan. Gizarte izaerako dirulaguntzaren bat (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larraldiko Laguntza) jasotzen duten familiek kuotaren % 70 jasoko dute dirulaguntzatan. Herritarren Arreta Zerbitzuan edo online bi helbide hauetan egin daitezke eskaerak: <https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU032122747> <https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=CA032122747>



Dorleta Kortazar ipuin kontalariak bereganatu zuen umeen arreta barikuan Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta, Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren saioa izan zen joan zen barikuan udaletxeko pleno aretoan. Koronabirusaren ondorioz, edukiera mugatua zegoen ekitaldirako, eta bete egin zen aretoa. Umeen arreta eta begiradak bereganatu zituen ipuin kontalariak.



Eñaut Elorrietaren kontzerturako sarrerak gaur jarriko dituzte salgai

Eñaut Elorrietaren kontzertua emango du maiatzaren 21ean Herriko Antzokian, eta kontzertu horretarako sarrerak gaur jarriko dituzte salgai. 20:00etan puntuan hasiko dira sarrerak saltzen, Kutxabank atariaren bitartez. Sarrerak agortu ezean, bihartik aurrera Herriko Antzokiko txarteldegian ere erosteko aukera egongo da, ohiko ordutegian. Kontzerturako sarrerak 10 euro balio ditu, eta Gazte Txartelarekin, 3 euro. Kontzertua hilaren 21ean izango da, 17:30ean. Kultura Sailak jakinarazi du sarrerak agortzen badira, bigarren emanaldi bat ere egingo dutela, egun berean, 19:30ean. *Eguzki Argitan* bere azken lana aurkeztuko du Elorrietak.

Euskara alorreko dirulaguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak

Udalerrian euskara sustatzen jarraitzeko, Elgoibarko Udalak hurrengo dirulaguntzak eskainiko ditu 2021ean: Udal Euskaltegitik kanpo eta barnetegietan euskara ikasteko dirulaguntzak (laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 24a izango da). Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Hik Hasik euskara hutsean antolatzen dituzten udako ikastaroak egiteko eta aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko; Elgoibarko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edo irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko, eta enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko. Eskaerak egiteko azken eguna, urriaren 29a izango da. Informazio gehiago www.elgoibar.eus atarian.

2022ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan da

Elgoibarko Udalak Ongarri argazki taldearekin elkarlanean antolatu du 2022ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa, eta aurtengorako aukeratu duten gaia baserrietako bizimodua, ohi-turak eta lana izango da. Partaide bakoitzak sei argazki aurkeztu ahal izango ditu; baina gehienez ere, pertsona bakoitzeko hiru argazki sarituko dira. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten duten 16 urtez gorakoek hartu dezakete parte. Argazkiak aurkezteko azken eguna 2021eko urriaren 7a izango da; eta lanak Aita Agirre kulturagunean edo euskara@elgoibar.eus helbide elektronikoan aurkeztu ahal izango dira. Epaimahaiak 12 argazki aukeratuko ditu egutegi handirako, eta beste bat, egutegi txikian jartzeko.

Finala irabazitzat eman diote Haitzart Iraolagoitia pilotari mendarorari, aurkaria konfinatuta zegoelako



J oan zen apirilaren 24an Mendaroko Goñati pilotalekuan jokatu zuten finalurreko partidari Ibon Ibarrari irabazita sailkatu zen Haitzart Iraolagoitia kadeteen bigarren mailako lau t'erdiko txapelketako finalerako. Aurreko zapatuan zuen jokatzekoa finala Zumaian, baina aurkaria, Aritz Olaizola, konfinatuta zegoen, eta ondorioz, finala irabazitzat eman dio Gipuzkoako Pilota Federazioak. Lehenengo aldia zuten bi pilotariek finalerako sailkatzen zirela, eta finalak baliorik izan ezta ere, jokatu nahiko lukeela adierazi du zumaiarrak eta prest agertu da mendarorria, bai eta federazioa ere. Partida hori, Olaizolak konfinamendua amaitzen duenean jokatuko dute, Zumaian.

Paula Calvo igerilaria euskal selekzioarekin lehiatuko da Espainiako Txapelketan



Selekzio Autonomikoen Arteko Espainiako Igeriketa Txapelketa jokatu dute, maiatzaren 21etik 23ra, Kataluniako Lloret de Mar herrian. Eskolarteko mailan diharduten igerilariarentzako txapelketa izango da, eta hamasei igerilari lehiatuko dira han euskal selekzioa ordezkatzuz. Horien artean izango da Paula Calvo Villalobos (2009, Elgoibar). Eibar Igerixan taldeko kide den igerilari elgoibartarra 100 metro libreetako proban lehiatuko da. Espainiako Kirol Kontseilu Gorenak antolatuta, marken kontrolerako alebin mailako jardunaldia egin zuten, maiatzaren 1ean, Irungo Azken Portu igerilekuan, eta Paula Calvok jardunaldi horietan lortu zuen Espainiako txapelketarako sailkatzea. 100 metro libreko frogatik minutu bat zazpi segundo eta 18 ehuneko denboran osatu zuen.



'Ez aitzaki ta ez atxiki' abestia sortu du Oier Gurrutxagak pilota munduko gorabeheraz

Esku pilotari buruzko abestia sortu du Oier Gurrutxaga musikari elgoibartarrak. Asteon kaleratu du abestia, domekan jokatuko duten 2021eko Binakako Finalaren atarian. Elezkanok eta Zabaletak Peña eta Albisu izango dituzte aurkari Bilboko Bizkaia frontoian jokatuko duten finalean. Gurrutxagak, baina, azken hilabeteetan pilota profesionalaren inguruan jazotako gertakariak eta eztabaidak izan ditu hizpide abestian, urak nahasita egon baitira azken aldian. Baiko enpresako pilotari talde batek esaterako, "pilotaren alde zerbait egiteko garaia" zela adierazi zuen, Victor, Eskiroz, Mariezkurrena eta Laso pilotariei euren lan harremanak ez berritzeko erabakiak hautsak harrotu ostean. Gurrutxaga bera epaile lanetan aritu da hainbat hilabetez, baina "injustiziaz" nola kaleratu zuten ere aipatzen du abestian. Bertsoak eta rapa uztartzen dituen abestia dela azaldu du elgoibartarrak eta doinua berak sortutakoa dela azpimarratu du. Gurrutxagak berak Deban sortu duen Brosoma Productions estudioan grabatu du abestia eta Brosoma Productions-ek Youtuben duen kanalean entzun daiteke.

Maite Maiora txapeldunorde Espainiako mendi lasterketen txapelketan

Euskal selekzioak inoizko talde sendoena eraman du Espainiako mendi lasterketen txapelketara, Iñaki Uribe-Etxebarria hautatzailearen berbetan, eta igarri da emaitzetan. Jaengo Sierra Maginako Parke Naturalean jokatu zuten lineako txapelketa, aurreko domekan. 28 kilometroko ibilbidea zuen, eta 2.250 metroko goranzko desnibela. Oihana Kortazar 2011ko Skyrunningeko eta 2012ko kilometro bertikaleko munduko



txapeldunak lehia estua eduki zuen Maite Maiorekin, 2016ko mendi maratoiko munduko txapeldunarekin. Laugarren kilometrorako lasterketa buruan zen antxitikari elgetarra, eta helmugara arte eutsi zion aldeari, baina azken kilometroetan hortzak estutu behar izan zituen garaipena lortzeko, atzetik aurrera eginez ia harrapatu baitzuen Maiorak. Hamasei segunduko alde motzarekin gailendu zitzaion Kortazar (3:06:22) Maiorari (3:06:39). Lehen lau sailkatuak ia elkarrekin ailegatu ziren helmugara. Euskal selekzioa ordezkatu zuen Mayi Mujika elgoibartarra 14. postuan sailkatu zen (3:29:57). Maiorak balio berezia eman dio bigarren postu honi, besteak beste, proba hau ez zegoelako denboraldi honetarako bere helburuen artean. "Izugarrria! Espainiako txapeldunorde! nire buruari jarritako lasterketen egutegia bete ezin nuenez, helburuak aldatu eta proba honetarako prestatzen hasi nintzen, horrek dakarrenarekin; entrenamenduak erabat aldatzea. Izan ere, denbora askoan ez dut parte hartu era honetako lasterketetan, eta adinean ere gora goaz. Zer gehiago eska dezaket, helmugarako lau kilometroren faltan podiumetik kanpo nengoen, baren! ez dagoenetik indarrak atera eta neukan dena eman nuen", adierazi du.

Kadeteen txirrindulari lasterketa jokatu dute Mendaron, maiatzaren 16an

Kadete mailako txirrindularientzako Mendaro Herria I. Sari Nagusia jokatu dute maiatzaren 16an, domekan, Mendaron (16:15). Irteera eta helmuga Kurutz Gain industriagunean izango ditu Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatutako probak, baina bizi dugun egoera dela-eta, jende pilaketak sahiesteko irteera eta helmuga puntura ez gerturatzeko eskatu dute antolatzaileek. 59 kilometroko ibilbidean Elgoibar, Soraluze, Bergara eta Arrasate igaroko dituzte, besteak beste.




Haundik Hernaniren bisita jasoko du bihar final-laurdenetarako kanporaketako joanekoan

Ohorezko Erregional Mailako ligako lehen fasea bere multzoko hirugarren postuan amaitu du Haundik, eta hortaz, beste multzoan bigarren sailkatu den Hernaniren aurka jokatu dute Hirugarren Mailarako igoera fasea. Bihar, hilak 8, jokatu dute final-laurdenetako kanporaketako joaneko neurketa, Mintxetan (16:30). Final laurdenak eta finalerdiak joaneko eta bueltako partidak erabakiko dira, eta finala, berriz, partida bakarrera. Hirugarren Mailara igoetzea izango da irabazlearentzako saria.

Aurreruntz atzeruntz baino azkarrago Karakatera

Apostu bitxi berri baten protagonista izan da Juanan Martin. Lagunarteko giroan, trago batzuen bueltan, sortu zen oraingo hau ere: ia nor igo azkarrago Karakateko gainera, bera edo bere lagun Asier Pires. Hori bai, berak atzeruntz korrika egin behar zuen Berasetatik tontorretarako bidea. Piresek 42 minutu pasatxoan osatu zuen ibilbidea eta Martinek bi minutu gehiago behar izan zituen.



LANA.....

Eskaerak

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua. ☎ 630 915 031

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Urte askotako esperientzia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetan aritzeko prest nago.

☎ 655 094 780

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. Etxeko langile moduan ere lan egiteko prest.

☎ 643 584 198

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 602 407 338

Adinekoak zainduko nituzke asteburuetan.

☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko garbiketara lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna.

☎ 612 565 490

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko lanetan ere aritzeko prest. Esperientzia daukat.

☎ 631 121 148

Lan bila nabil. Esperientzia daukat zerbitzari lanetan, umeak zaintzen eta portalak edo etxeak garbitzen.

☎ 641 511 910

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. 5 urteko esperientzia daukat.

☎ 632 576 642

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz eta prestutasun osoa daukat.

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Eskaintzak

Elgoibarko ileapaindegi baterako esperientziadun ile-apaintzailea behar da.

☎ 634 261 485

ETXEBIZITZA.....

Etxea salgai Gabriel Krutzelaegi kaleko 8an, lehen solairuan. 70 m². Bi logela, egongela handia, komuna, eta sukaldea. Garajea eta trasteleku. Babes Ofizialeko etxea.

☎ 675 709 569

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756



Mila esker zuen konfiantzagatik!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

- ★ Kotoizko izara organikoak
- ★ Ehun iraunkorrak
- ★ Kotoi organikoa, leuna, naturala, transpiragarria eta hipoalergenikoa

GOTS ziurtagiriarekin





Canjeo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Barakle Konturua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko jabe batek bere terrazako baranda konpontzeko eskatu du, egoera txarrean dagoelako. Jakin nahi nuke nork hartu behar duen bere gain terrazetako barandak mantentzeko eta konpontzeko ardura.

Oro har, barandak elementu komuntzat hartzen dira, nahiz eta kontserbazioa eta mantentzea komunitateak erabakitakoaren menpe egon. Aurrekaririk ez badago, Jabeen Batzordeak erabakiko du nork ordainduko duen gastu hori: Bakoitzak bere gastuak ordaintzea (legeak aipatzen dituen itxiera-elementuak ere sar daitezke), partikularren eta komunitatearen artean ordaintzea, gastu guztia komunitateak ordaintzea, edo, besterik gabe, banaka ordaintzea, erabilera eskusiboa duelako eta ez delako logikoa jabe batzuek mantenu lana ez egiteak guztientzako gastuak ekartzea. Beraz, Jabeen Batzordeak aztertu beharko du gaia, eta erabaki gokiak hartu, pentsatuz tratamendu juridiko bera eman beharko zaiela aurrerantzean jabe guztiei. Arau orokor horiez gain, egiaztatzen bada jabearen kontserbazio desegokiagatik hondatu dela baranda, erantzukizuna egoeraren kausatzailearena bakarrik izango da.

ONDORIOA: Kasu espezifikokiari begiratu beharko zaio. Baina, hasiera batean, kanpoko aldeko terrazetako baranda elementu komuna da, fatxadaren parte delako, baina horrek ez du esan nahi jabe guztien ardura dela mantenua. Beraz, arazoa zaintza-falta bada, ez da komunitatea konponketa egitera behartuta dagoena, kaltea eragindako jabea baizik.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Luken!** Asko maite zaitugu! Elgoibarko familieren partez.




Zorionak, **Jakes!** Asko maite zaitugu! Elgoibarko familieren partez.



Zorionak, **Mikel,** etxekoan partez maitezaren 8an 9 urte egin dituzulako.



Zorionak, **Paula,** 11 urte bete dituzulako. Etxekoan partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Iker eta Haritz,** astean 7 eta 10 urte bete dituzuelako. Jarraitu beti bezain jator. Muxu handi bat, etxekoan eta laguneren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

KIMA
Makillaje-zerbitzual
Orain ere
Idama ileapaindegian.
Hitzordua hartzeko:
646 563 706
Urazandi 9, behea - Elgoibar - www.kimabioesteerka.webkoibox.com

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

EXPRESS ESKAINTZAK!

CECOTEC ROCKSTAR 900 X-TREME XURGAGAILU BERTIKALA

199 €

- Kablerik gabeko xurgagailua, hiru baten.
- Eskuko erratza.
- 200a W xurgatzea.
- Eskularik gabeko motor digitala.
- 90 minutura arteko autonomia.

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

8 ZAPATUA

9:30 Morkaikora irteera. Elgoibarko Sarek antolatuta, 'Izan bidea' ekimenaren barruan. Kalegoen plazatik. Autoz joan nahi dutenekin 10:45ean batuko dira Aiastian. Argazkia aterako dute eta Judas Argaratek kontzertu akustikoa emango du.

9:30 'Izan bidea', Mendaron. Herriko Enparantzan batuko dira eta hiru taldetan banatuta Garaluz, Gaintxipixa eta Otarre tontorretara abiatuko dira. 11:30ean argazkia aterako dute.

10:00 'Gazteengandik gazteentzat'. Tokiko merkataritza sustatzeko ekimena. Kalegoen plazan.

16:00 Elgoibarko Aurreku Txapelketa. Herriko Antzokian.

9 DOMEKA

11:00 Elgoibarko Aurreku Txapelketa. Herriko Antzokian.

11 MARTITZENA

19:00 Musika Eskolako koruaren kontzertua. Herriko Antzokian.

12 EGUAZTENA

19:00 Musika Eskolako koruaren kontzertua. Herriko Antzokian.

14 BARIKUA

19:00 Zine foruma: 'Carmen y Lola'. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Godzilla vs. King Kong'

7 barikua: 19:00

8 zapatua: 19:00

9 domeka: 19:00

10 astelehena: 19:00

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK Egunez: 09:00-22:00
Iluntzean: 20:00-22:00
Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

7 BARIKUA	8 ZAPATUA	9 DOMEKA	10 ASTELEHENA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia
11 MARTITZENA	12 EGUAZTENA	13 EGUENA	14 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00

Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar) - 943 201 912

I. URTEURRENA

Ioseba Arrizabalaga Mendikute

"Iriarte"



2020ko apiriaren 19an hil zen, 43 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 9an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.**

Sendiak



Rosa Lariz Muguruza

2021eko maiatzaren 2an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



XX. URTEURRENA

Francisco Javier Zarzuelo Altuna

2001eko apirilaren 10ean hil zen, 48 urte zituela.

**Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin geratzen da.**

Zure izeba Lide Altuna




IX. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

**Gure ondotik joan zinela
bederatzi urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre eta alaitasunaz
gogoan bizi gara gu.
Zeruko izarrik argitsuena
Itziar, maite zaitugu.**

2012ko maiatzaren 7an hil zen.

Familiakoak



IX. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

**Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan.**

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

Familiakoak





Natura proiekturako hezitzailea behar du Elgoibarko Izarrak

Natura proiektu pilotuaren helburua aisialdi euskalduna eta hezitzailea eskaintzea da, haurren garapen integrarean positiboki eraginda eta naturak eskaintzen dituen onurak aprobetxatuta.

ESKAITZEN DA:

- 2021eko irailetik hilean 30 orduko lan-kontratua.
- Arratsaldeko jarduna.
- Proiektu berritzaile baten parte izateko aukera.

ESKATZEN DA:

- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila handia izatea.

BALORATUKO DA:

- Begirale titulua edota hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea.
- Pedagogia aktiboetan esperientzia edota formazioa izatea (Baso-eskola, Pedagogia berdea, Montessori, Waldorf, etab.).
- Naturaren inguruko ezagutza edota sentsibiltatea izatea.
- Garapen pertsonalerako bestelako gaitasun nahiz praktikak izatea (adimen emozionalaren inguruko ezagutza, disziplina positiboa, entzute aktiboa, komunikazio ez-bortitza, ...).
- Parte-hartzea, hezkidetzeta edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzeko titulazioa izatea.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Malgutasuna izatea, egutegi eta ordutegiari dagokionez.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Curriculumua bidaltzeko azken eguna **MAIATZAK 17**

kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

Zalantzarik izanez gero, deitu lasai 943 741 626 edo 643 499 169 eta Amaia Lasagabasterrengatik galdetu



ELGOIBARKO IZARRAK ALDI BATERAKO ATXUTXIAMAIKARAKO AISIA HEZITZAILEKO ARDURADUNA BEHAR DU

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Aisia hezitzaile saileko proiektuak eta ekintzak koordinatzea eta aurrera eramatea (familla programa, udalekuak, nerabeak, euskara errefortzuak...).
- Lantalde profesionala koordinatzea.
- Elkartegintza eta herrigintza sustatzea.

ESKATZEN DA:

- Zuzendari titulua izatea.
- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila handia izatea, ahoz eta idatziz.

ESKAITZEN DA:

- Jardun osoko ordezkapen kontratua.
- Formatzeko aukera.

BALORATUKO DA:

- Pedagogia aktiboetan esperientzia edota formazioa izatea (Baso-eskola, Pedagogia berdea, Montessori, Waldorf, etab.).
- Garapen pertsonalerako bestelako gaitasun nahiz praktikak (adimen emozionalaren inguruko ezagutza, disziplina positiboa, entzute aktiboa, komunikazio ez-bortitza, ...).
- Soziolinguistika ezagutzak izatea (hizkuntza aniztasuna, motibazio saloak, ...).
- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzeko titulazioa izatea.
- Parte-hartzea, hezkidetzeta edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Naturaren inguruko ezagutza edota sentsibiltatea izatea.
- Lan taldeak koordinatzen esperientzia izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Malgutasuna izatea, egutegi eta ordutegiari dagokionez.
- Gidabaimena eta autoa izatea.



Curriculumua bidaltzeko azken eguna **MAIATZAK 17**

kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

Zalantzarik izanez gero, deitu lasai 943 741 626 edo 643 499 169 eta Amaia Lasagabasterrengatik galdetu